

Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko uztaillaren 31. III. urtea

Usurbil, 48. Zenbakia



*San Estebango
erromeria haiek...*

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Ainhoa**, 14 urte betetzen dituzu abuztuaren 17an. Egun ederra pasa. Tarta zure kontura jatea espero dugu. Muxu haundi bat eta segi orain arte bezain jator eta langile. Etxekoak.



Zorionak **Oihana Sagarna** datorren abuztuaren 2an zure urtebetetze eguna delako. Ea parrandaxoren bat egiten dugun aspaldiko partez elkarrekin zure kontura San Estebanen. Muxu asko, kuadrilatarrak.



Zorionak **Imanol Arrojeria Aranzastroki**. Uztaillaren 23an 6 urte bete zenituenez zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partez.



Intza **Gurrutxaga Loidi**. Kaixo Piti! Abuztuaren 1ean 2 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu haundi bat zuretzat. Etxeko guztion partez.



Zorionak **Joakina Beloki**. Uztaillaren 29an egun polita igaroko zenuelakoan mila zorion zure seme-alaba eta billoben partetik.



Zorionak **Josune!** Uztaillaren 28an hire azukre koxkorrekin ikusi nahi haugu hortxe, badakin. Ea piperrak ez zaizkigun minak suertatzen.



Iban Villafafilak uztaillaren 28an bete zituen 18 urte, **Iñigok**, berriz, 30ean 22 urte. Zorionak bioi etxekoan partetik.



Kaixo **Mikel**, zorionak! 27 urte bete dituzu dagoeneko. Espero diagu Ekuador alde horretan ospatuko huala uztaillaren 18an. Etxekoak



Zorionak **Xuban!** Uztaillaren 21ean oso ondo pasa genuen familako guztiok. Muxu haundi bat eta zorionak!



Uxue eta Leire. Abuztuaren 8 eta 27an ospatuko ditugu zuen urtebetetzeak. Har itzazue zuen sendi osoaren zorionik beroenak.



Abuztuaren 4an beteko dira 25 urte ezkondu zinetenetik. Zorionak **Jexux eta Agustina!** muxu pila bat. Josu eta Aitziber

Jaiotzak

Antton Errekondo Sola
(1998-07-04)
Olarriondo

Lide Zumeta Zuasti
(1998-07-10)
Kaleberri

Mikel Guadix Dominguez
(1998-07-18)
Olarriondo

Hurrengo alea: irailaren 4ean

Agurrak ekartzeko epea abuztuaren 28an amaituko da

Bai, esan?

- | | | | |
|--------------------------|----------|----------------------------|----------|
| • Udala | 37 19 51 | • Taxi geltokia | 36 21 78 |
| • Udaltzaingoa | 36 11 12 | • D.Y.A. | 46 46 22 |
| • Anbulategia | 36 20 13 | • Gurutze Gorria | 27 22 22 |
| • Udarregi ikastola | 36 12 16 | • Gure Pakea egoitza | 37 32 28 |
| • Agerialdeko ikastetxea | 36 38 95 | • Gure Elkartea egoitza | 37 17 51 |
| • Oiardo kiroldegia | 37 24 98 | • Arrate egoitza | 36 63 40 |
| • Zumarte musika eskola | 37 15 94 | • Eusko Tren informazioa | 47 09 76 |
| • Etumeta euskaltegia | 37 20 01 | • Noaua! aldizkaria | 36 03 21 |

Noaua! aldizkariak ere opor egun batzuk behar ditu. Joan den urteko irailaren 19tik zintzo-zintzo bi asteetan behin zuen etxeetara iritsi ondoren ordenadoreak, eskanerrak eta inpresorak oporrak hartu behar dituztela jakinarazi digute. Guk ere gustora hartuko ditugu opor egun batzuk. Horregatik hauxe izango da irailaren 4a bitartean jasoko duzun azken alea. Esan bezala, irailaren 4an indar berriturik aterako da Noaua!. Orduan izango duzu eskuartean 49. alea.

Zer irizten?



Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkarte
Kale Nagusia, 37
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com

Zuzendaria

Olatz Altuna

Kazetariak

Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai,
Josu Aranberri, Garikoitz Udabe

Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino,
Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,
Nieves Aranburu, Luis Aranalde,
Zalao Arnaiz, Maribi Arrospide,
Agurtzane Solabarrieta, Joseba
Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi,
Olatz Leoz, Agustin Esnaola, Izaskun
Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro
Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña
Arriaga, Urko Manterola eta Joxe
Torregaray.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino.

Erredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,
Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre eta Aintzane Aizpurua

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker
Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Sukaldaria

Joxe Mari Sarasola

Tirada: 2.300 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du
bere gain hartzen aldizkarian adie-
razitako esanien eta iritzien erantzun-
kizunik.

Azala: Sanestebango
plaza garai bateko
erromerian



Ikasle eta adinekoen elkarbizitza programa

Olatz Otamendi

Udaleko gizarte laguntzailea

Ikasle eta adineko pertsonen arteko elkarbizitza programan izena emateko epea zabaldu du Gipuzkoako Foru Aldundiko gizartekintzak. Beren etxeetan bakarrik bizi diren adinekoei etxean ikasle bat hartzeko aukera ematen die programa honek, alboan pertsona gazteago bat izateak gure zaharentzat suposatzen duen lasaitasuna eta segurtasuna ikusita. Lehen aldiz martxan jarri zenetik pasa diren hiru urteetan, balorazio ezin bai-korragoak jaso ditu egitasmo honek, bai adinekoen bai ikasleen artean.

Datorren ikasturtean "ikasle eta pertsonen arteko elkarbizitza" programan parte hartzeko izen emate epea zabaldu du Gizartekintzak. Programa honen bitartez, eguneroko bizitzan faltan botatzen dituzten laguntza minimoak eskeini nahi zaizkie bakarrik bizi diren adinekoei, eta, aldi berean, Gipuzkoako kanpusean ikasketak burutzen dituzten beste lurraldeetako ikasle askoren alojamendu arazoari konponbidea eman.

Gizartekintzak eta EHUK elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten 1995ean arazo desberdin biri erantzuna ematen dien programa garatzeko. Gipuzkoako kanpusak jasotzen dituen beste lurraldeetako 5000tik gora ikasle alojamendu arazoari irtenbide egokia eskaintzea zen aipatutako erakundeen helburua. Ikasle horietako askok, Donostian etxebizitza bat lortzeko diru sarrerarik ez dute eta egunero kilometro ugari egin behar izaten dituzte.

Programa honen bitartez, beren eskolatik gertu bizitzeko aukera ematen zaie gazteei, ikasteko eta atseden hartzeko duten denbora gehituz. Aldi berean, laguntza minimo bat izan ezker berean etxeetan bertan bizitzeko gai diren pertsonen hala egiteko aukera ematen zaie, erresidentziara eramane gabe.

Programaren arduradunek azaltzen dutenez "etxean ikasle bat hartzen duten adinekoek askoz ere lasaiago bizi direla aipatzen digute, gauez batez ere. Izan ere, gauean nabarmenagoa izan ohi da bakardade sentsazioa".

Elkarbizitza mota bi daude aukeran: "laguntza egitea" edo eta "laguntza ematea". Adinekoek Gizartekintzaren diru laguntza jasotzen dute, ikaslea etxean hartzeagatik izan ditzaketen gastu bereziak (ur, argi...kontsumo handiagoa etab.) konpentsatzeko. Ikasleek ez dute inolako ordainketarik egin behar.

"Laguntza egitea" deitu dugun aukera hautatu ezker, ikasleak jatorriak eta gaua pasa beharko ditu nagusiarekin. Baita ere erosketak egitera, farmaziara... lagundu beharko dio. "Laguntza ematea" hautatu ezker, berriz, adineko pertsonari bere zeregin pertsonalean lagundu beharko dio ikasleak (jeiki, garbitu, jantzi...); etxeko lanetan ere parte hartu beharko du. Dena den, lan horiek ezin izango dituzte bere eskola eta ikasketak orduak oztapatu inondik inora.

Programa honetan parte hartzeko aukera izateko, adineko pertsonak ikaslearentzako logela egoki bat izan beharko du etxean. Ikasleak bere logela propioa izango du beti. Bestalde, ezinbestekoa da ikasle eta nagusiaren artean inolako senitartekorik ez egotea. Ikasle bat baino gehiago hartzea ere posible da.

Programari buruzko informazio zabalagoa jasotzeko Gizartekintzaren dohaineko telefonora deitu dezakezu, 900-434343 telefonora. Bestalde, adinekoek Aldundiko Gizarte Zentroetan dauden gizarte langileekin hitz egin dezakete. Ikasleak, berriz, Koldo Mitxelena kulturunean eta Gazte informazio guneeetan informatu.



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Beste dendari bat

Noaua! ren 40. zenbakian Eroskiren inguruko Usurbilgo dendari baten kezka zetorren, alkateari eskerrak emanez. Irakurri ondoren, hauxe dator kit burura. Bat, lehenengo ahaztu egin zaizula herriari eskerrak ematea, eta errespeto falta iruditzen zait gainera; zuk ondo dakizun bezala bera izan baitzen, herria, proiektuaren aldeko botoa eman zuena. Bestetik, eta hau ohitura zabala da kritika egiterakoan erabiltzen den taktika. Alegia, bati apuntatu eta besteari ematekoa, kasu honetan, Eroskiri apuntatu eta udal arduraduna erasotu, eta jakina, arduradunak kolore batekoak direla. Ez dakit, dendari hau zein den, ezta zer kolorekoa den ere. Baina dudarik ez udal arduradunek egiten

dutena positiboki eskertzen denborarik galtzen ez dutenetakoa dela. Ni ere dendaria naiz eta noski horrelako proiektuak ez digula mesederik egiten, baina, Eroski baino lehenagoko proiektuak ere baditugu gure herrian Aurrezki Kutxarena esate baterako. Era guztietako tresneri eta abarrek herriko komertzio gehienei kalte egiten die, eta zuk, oraindik ez dizkiozu eskerrak eman.

Eta noski, hau dena, sistemak ematen digun oparia dugu, kompetenziaren gordintasuna, lotsagabekeria, eta orokorrean merkataritza basatiaren aukerak bultzatzen dituen sistema.


Beste dendari bat

Gu ere egin-ekin

Noaua! Kultur Elkarteko junta eta Noaua! aldizkariko kazetariak ondorengo arrazoiengatik Egin egunkaria eta Egin irratia gure elkartasuna adierazi nahi diegu:

Administrazio kontseilu bateko kide batzuri leporatutako balizko delituengatik komunikabide bat istea ez dela bidezkoa irizten dugu, pertsona fisiko batzuen ustezko jardunak eta komunikabidearen funtzionamendua bereiztu behar baitira.

Adierazpen askatasuna giza eskubide bat izanik, komunikabide hau isteko erabakiak eskubide hori ez errespetatzea dakar, hainbat pertsonari informazioa jasotzeko bide bat itxi zaiolako. Horrelako neurri larriek gatazka areagotu besterik ez dute egiten eta.



*Benetan moja ote da argazkikoa? Ez al duzue ezagutu? Ez da benetako moja, mojetan ibili zirenen afaria antolatzeko ideia izan zuen **Mirari Larreta** baizik. Aldamenean ditu garai batean mojetan ikasle izan zirenetako bi, orduan erabiltzen zituzten jantzi eta guzti.*

**TXARO ARTZE
ILEAPAINDEGIA**

**Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa**

Etxebeste, 3 Tel. 943 37 16 85

Arkume erretegia

Arkumea parrilan

Haurrentzako parkea

Zumartegi industrialdea
Aitezarra kalea, 4



Aparkalekua

Barazkiak parrilan

Etxeko berezitasunak

Ospakizunak eta despedidak

USURBIL Tel.: 943 36 60 49

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009




GENERALI
Aseguru Konpainia

**Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako**

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Berriketan



Xelextino Aburuza Agirre

Kalezarko Usaskue baserrian jaioa, orain dela 10 urte inguru arte herriko aguazila izan zen. Hala ere, igeltsero lanetan aritu izan da ia bere bizitza osoan. Orain ere, nahiz eta 65 urte izan "Lau hai-zeta" bere etxearen kanpo alde txukuntzen ari da.



Noiz hasi zinen igeltsero lanak egiten?

14 urte ingururekin Gertrudis eta Matilderekin diploma atera ondoren baserrian ibili nintzen urtebetean. Gero "Abrasive" lantegia egiten hasi nintzen Arruti igeltseroarekin. Hortik aurrera batera eta bestera ibiltzen ginen, beti obra lanean. Lasarten, Hernanin, Donostian... beti eraikuntza lanean ibili nintzen soldaduskara joan aurretik. Lantegiak egiten genituen gehien bat.

Zer moduzko soldaduska egin zenuen?

Ezin kexatu, Irunen egin bainuen. Astearen azkenean guardiarik ez nuenean etxera etortzen nintzen. Honela, larunbatean eta igandean igeltseritzan aritzeko aukera izaten nuen. Orduko duro bat irabazten genuen, soldata haundia ez zen baina...

Usurbilen ere zenbait etxe eraikitzen ibilia omen zara.

Soldaduska bukatu ondoren gehien bat. Errekondotarren etxea, sindikatua dagoen etxea eta Kalezarren beterinario zaharraren etxea egiten aritu ginen igeltseritzan. Guzti hau Frantziara joan aurretik.

Frantzian ere egon al zinen ba?

12-14 urte egon nintzen Frantzian, han ere igeltseritza lanean. Eraikuntza lanak egiten Frantziako toki askotan egona naiz, Alpeetan ere bai. Urtean behin etortzen nintzen Usurbila eta hailetako batean sortu zitzaidan Usurbilen udaltzain izateko aukera.

Nola sartu zinen aguazil postuan?

Alfontso zana, orduko bigarren udaltzaina gabonetan hil zen. Garai hartan inork ez zuen

aguazila izan nahi, oraingoan aldean oso gutxi irabazten zen garai hartan. Udaltzain izateko izena eman nuen baina Frantziara joan nintzen berriz lanera. Halako batean emazteak eskutitz batean honelako egunerako Usurbila joateko esaten zidan. Dudan egon nintzen baina azkenean itzuli eta udaltzain lanetan hasi nintzen. Hobeto esanda, goizez igeltsero lana egiten nuen eta arratsaldean udaltzain izaten nintzen.

Lanean ezezik juergan ere ibiliko zineten gazte denboran.

Nire bizitza guztian gaupasa bakarria egin dut. Hil berria den Joxe Aginagak arreba bat bazuen Lasarten. Harengana bazkaltzera joan ginen San Pedro egunean. Orduan egin nuen gaupasa. Goizeko 6.00etan etxeratu nintzen eta aita han ari zen behiak biltzen. Etxera igo, bokadillo hartu eta bizikletaz lanera joan nintzen Hernanira. Eguna luzea egin zitzaidan.

Lanera bizikletaz joaten al zineten?

Besterik ez zegoen eta! Gaurko bizikletak izan bagenitu! Gu baino pisu haundiagoko bizikletekin ibiltzen ginen. Troian edukitzen nuen bizikleta eta hanka hutsik jeisteko ohitura genuen, alpargatak eskuan genituela. Orain ihintzetan ibiltzean hotza dagoela iruditzen zait, garai hartan ordea, epelagoa izaten zen. Gero alpargatak jantzi, bizikleta gainean jarri eta han joaten nintzen lanera.


Eta ordua nola kontrolatzen zenuen?

Orduan ez nuen eskumuturreko erlojurik. Luzuriagako ate ondoan erloju bat zegoen, hari begiratu eta azkarrago edo mantxoago joaten nintzen. Garai hartan kotxea nagusiak bakarrik zuen.

P A T R I

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak
eta afariak



TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

**SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA**

IOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa

943
37 19 54

**INDYSTRIA ETA
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA**

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

TXOKOALDE

Iñaki Labaka



San Esteban egunerako oparia

Uztailari agur esan eta abuztuari ongi-etorria ematen diogun honetan San Estebanak izaten dira protagonista nagusi. Urtero bezala jendea auzo txiki honetako festak noiz iritsiko zain egoten da eta aurten ere festa eta parranda egunero egingo duenik izango da.

Gurean berriz, nobedadde haundirik ez. Azken urte honetan obrak izan dira nagusi eta horrela jarraitzen dugu oraindik ere. Dena amaitzea nahi eta ezin amaitu, nahi eta ezina deitzen zaio horri. Hala ere gu, kaxkoan bizi gareak ezin kexa-

tuko gara. Hemengo kaleetan, Erroizpe elkarte inguruko bideetan galipota bota dute.

Hala ere, behe aldetik gora, pixkanaka-pixkanaka galipota bota eta bidea berdintzen joateko asmoa dutela dirudi. Martxa honetan San Esteban egunerako Urdaiaga gainera joateko bide berria estreinatzeko aukera izan



dezakegu. Ez litzateke opari txarra izango, gustora hartuko genuke guk behintzat. Ez ba obra hauek behin betirako amaitzen dituzten.

KALEBERRI

Itziar Aizpurua



Jende gutxi dabil Kaleberrin

Udara dela nabaritu da bai azken asteetan. Beste urtaroeekin alderatuta jende gutxiago ikusten dugu kaxkoko kaleetan. Goizez eta arratsaldez behintzat nabaritzen da jende asko oporretara joana dela, kaleak erdi hutsak gelditzen baitira. Eta zer esanik ez eguraldi ona egiten duenean, orduan bai arimarik ere ez dela herrian ikusten.

Bestalde, uztaillaren 23an Egin egunkaria eta irratia ren ixtearen aurka egin zen lanuzteaz ere hitz egin beharko. Izan ere, Kaleberrin geldialdia erabatekoa izan zen. Goizeko 11.00etatik eguerdiko 13.00etara Kaleberriko denda eta taberna

gehienek edo denek beren atea itxi zituzten.

Bukatzeko, artea jorratuko dugu tarte honetan, bai artea, ondo entzun duzue. Azken hilabete hauetan, graffiti bat baino gehiago ikusi dezakegu Kaleberriko kaleetan. Orain dela hilabete batzuk azaldu ziren lehenengoak eta azken bi aste hauetan frontoiaren atze-

an spray-ez egindako marrakiak azaldu dira. Azkenean frontoiaren ezker paretaren atzekaldea arte lan bat bihurtuko da martxa honetan.



ATXEGALDE

Bi orduko geldialdia

Uztailaren bukaerara iritsi gara eta oraindik festa giroan murgildurik gabiltza. Baina festak bertan izan arren, azken aste honetan sufritzen ari garen zauriak ezin ditugu alde batera utzi. Frankismo demokratikoak bere erasoaldi gupidagabea aurrera darama, eta euskararen aurrerapena itotzeko gurutzada indartuz. Orain berriz, euskal herritarren ahotsa bahitu digute. Otsoak bere haginak erakutsi ditu, otsoaren haginak berdin dira beldurgarri, gosez ala nagusikeriaz erakutsiak izan.

Bidegabekeria hau salatzen eta Egin eta Egin irratia elkar-

tasuna adierazteko, usurbildarrok uztailaren 23an bi orduko geldialdira deitu gintuzten. Atxegaldeko komertzioek bat egin zuten arren, auzoan lanean diharduten langileek ez zuten halakorik egin, berean segi baitzuten.

Langileak aipatu ditudenez, auzoan egiten ari diren lanei buruz zerbait gehiago jakin dugu.

Zaloa Arnaiz



Eskailerak berri egingo dituzte eta plaza osoa ere bai. Hasiera batean lan hauek ez zituzten egin behar baina azkenean egitea erabaki dute.



KALEZAR

Aurten ere San Rokerik ez

Uztailaren amaieran bagaude ere abuztua gainean dugu. Orain dela gutxi San Juanetan geunden eta orain berriz, San Inazio dabilkigu inguruan.

Abuztuarekin batera lehen kalezarren egun haundia izaten zen **San Roke eguna** ere gainean dugu. Badakit abuztuaren 16a iristeko oraindik egun asko falta direla, baina tartean Noaualrik ez dugunez zerbait komentatzea komenigarria iruditu zait.

Askotan entzun izan dugu lehen Kalezarren San Roke eguna nola ospatzen zen. San Juanak bezain garrantzitsua


izaten omen zen egun hura. Udalak ere dirulaguntza bi festak antolatzen ematen zien. Hala ere ohitura hori galdu egin zen eta azken urteetan ez da Kalezarren San Roke eguna ospatzen.

Jaiak utzi alde batera uztea onena eta udal kontuak jarraian. Izan ere, udalak Labe-txikik Ugarte industrialdean zuen pabilioia erosiko duela aipatu zen aurreko batean eta badirudi udalako ordezkariak lokal

Urko Manterola



hori erosteko erabakia hartu dutela. Beraz, orain lehen zutenaz gain beste bat izango dute zerbitzuetako materiala gordetzeko.



SANTUENEA

Bide bazterrak hobetuz

Santuenen obrak dira nagusi. Batetik ez bada bestetik, bide batean ez bada bestean lanean dabilta azken hilabeteetan.



Zorrotzako zubia amaitzen ari dira, hala dirudi behintzat. Oinezkoentzat pasabidea jarri dute eta ibilgailuentzat dagoen bidea ere asfaltatu eta

berrituta jarri dute. Orain, kotxeak eta oinezkoak lasaiago ibiltzen dira, nahiz eta oraindik lanean ari diren.

Izan ere, bide alboetan jarri behar dituzten barandilak jartzeko daude oraindik. Hainbeste urte-

tan egon diren harrizko pretil zaharrak kendu eta altuera haundiagoa duten batzuk jarriko dituzte, ibaira erortzeko arriskua txikiagoa izango delarik.

Santuenetik Urdaiagara joateko bidean, lurjausiek zenbait arazo sortu zituzten. Bihurgune nagusia hartu aurretik bidearen zati txiki batek behera egin zuen eta arrisku handia zegoen leku horretan. Orain, berriz bere onera ekarri dute guztia. Behekaldea, indartzeaz gain, hoian segurtasuneko burnizko barra jarri dute. Harri bat edo beste Señarrienera erori zitzairen arren dena konponduta dago orain. San Estebango festetara joateko arazorik ez da izango.

Alfontso Vidal



URDAIAGA

San Esteban jaien atarian

San Esteban auzoko jaiek dagoeneko gain-gainean ditugu. Hori dela eta jai batzordeak nahikoa lan izan du guztia antolatzen eta bertako baz-

terrak txukuntzen. Elizari erantsita dagoen etxea urte osoan zehar hutsik egoten da, eta guztia garbitu eta txukundu ederra eman behar izaten zaio.

Jaiak ongi pasa ditza-zuen gazte talde bat arduratzen da bertako lanaka burutzeaz, bazterrak behar bezala garbitu eta txukuntzeaz eta, nola ez, jaiak



antolatzeaz. Bestalde, jai batzordeak ohartxo bat bidaltzen dizue herritar guztioi: ez direla erantzule egiten nolabaiteko ezbeharrik gertatuko balitz.

Jaiak hain gertu izanda inguru hauetan egiten ari ziren lanak ere bizkortu dituztela ematen du, denbora luzez egon baitita hamaika bazter noiz konponduko zain. Hainbat lekutan, batez ere errepidean izan du eraginik haundiena.

Jaien inguruan esan beharreko guztia esan ondoren, jai batzordeak jai zorientsuak igaro ditzazuela opa dizue guztioi.

Eider Jauregi



AGINAGA

Eskola berria prestatzen hasi dira

Hasi dira dagoeneko eskola berria prestatzeko lanak. Bete beharreko paper guztiak bete dituzte eta bi aldean arteko akordioarekin datorren kurtsorako dena prestatzea espero da. Ikastola berriak 3 gela izango ditu eta horrez gain komunak egingo dituzte.

Baina non jarriko dute ba eskola berria? Arrate zahar egoitza dagoen pisu berean egongo dira Aginagako haurrek, pasilo amaieran hain zuzen ere. Kurtso berria, beraz, inaugurazio batekin hasi behar du auzoko haurrek. Uztaila joan da eta abuztua eta iraila-

ren hasiera gelditzen zaie dena prestatzeko.

Bestalde, San Praixkuak gerturatzeko ari dira. Udaran festa giroa nagusi den honetan Aginagan festak prestatzen hasteko garaia iritsi da. Jai batzordean parte hartu eta proposamenen bat egin nahi duenak zabalik dituzte ateak. Jai batzordea



Iratxe Begiristain



asteartetan biltzen da gaueko 9.00ak aldera apaiz etxeko gelan. Beraz, badakizu, denon artean San Praixku hobea prestatuko ditugu. Parte hartu nahi baduzu badakizu bidea.

ZUBIETA

Festa giroan murgilduta

Santio jaien erdi aldean gaude eta orain arte giro onean eta umore ederrean ospatu ditugu zubietarrok gure jaiak.

Ostiralean, hilak 24, eman genien hasiera gure jaiari, txupinazoarekin lehenengo eta "Egan berria" taldearen dantzaldiarekin gero. Balsak, fandangoak etab. dantzatzeko aukera izan zuten bertara hurbildu ziren guztiek. Hurrengo egunean, Santio eguna, Zubietarren patroia, dantza soka izan genuen nagusi. Bertan, herriko zenbait pertsonen parte hartu zuen eta dantzari finak direla argi utzi zuten. ez dira alferrikakoak izan **Iñaki**

Urkiaren ikastaroak.

Arratsaldean trikitixa txapelketa izan genuen eta gauean, berriz, adin guztietako jendearentzat aukera zabala, betsolaris, ska eta izotz taldearekin.

Igandean bi eguneko ajeak nabaritzen ziren zenbaiten aurpegietan. Hala ere, goizeko etxeferoekin batera, berriro ere festari ekin genion, horretarako, eskuz pilotako bigarren txapelketen finalak izan genituen ikusgai. Bazkari modukoa egin ondoren Altzoko dantzariak aritu ziren, eta ondoren, giro sargoriari aurre egiteko sagardo trago batzuk hartzeko aukera izan genuen.

Gauean, herri afaria izan genuen Irigoien erretegiarekin. Bertara, trikitilariak eta **Egaña eta Lizaso** bertsolariak hurbildu zitzaizkigun. Txantxa ugari egin zituzten bertsolariek herritarren kontura, **Ebaristo, Xabier Arregi, Izaskun eta Zuastitarrak** izan zirelarik bertsoetan aipagai.

Oraindik, hainbat ikuskizun ditugu San Inazio eguna arte Zubietan. Egun honetan amaituko zaizkigu festak, errebotea, zikiro jana eta Laiotz taldearen dantzaldiarekin.

Zubietako gazteen lanaren emaitzak agerian geratu dira. Zorionak eta eskerrik asko kronista honen partetik.

Mikel Bengoetxea



Euskararen erabilerak gora egin du azken lau urteotan

Euskal Kulturaren Batzarrak (EKB) Euskal Herri osoan euskararen erabilera ezagutzeko neurketa burutu du hirugarren aldiz. 159 udalerrri aztertu dira: Ipar Euskal Herrian 1.000 biztanletik gorako guztiak, eta Hego Euskal Herrian 5.000 gorako denak eta beherako udalerrri kopuruaren %10a. Hortaz, Usurbil ere, 5.265 biztanle izanik, neurketa honetan aztertuta izan da. Emaitzen berri eman aurretik, euskararen erabilera noiz, non, eta nola neurtu den adieraziko dugu.

Iazko azaroaren 12an, asteazkena, eta 15ean, larunbata, ekin zitzaion gure herriko neurketari, guztira 6 orduetako neur-taldia osatuz.

Neurtutako herrietan, tamainaren arabera, ibilbide bat edo gehiago zehaztu ziren. Usurbilgo neurtzaileak Kale Nagusia, Irazu eta Etxebeste kaleak, frontoi atzeko parke ingurua, eta Zubiaurrenea kaleetan zehar ibili ziren.

Neurtzaile lanetan tokian tokiko herritarrak aritu ziren. Usurbilen, Etumeta euskaltegi-koek eta Euskal Herrian



Usurbilgo neurtzaileak Kale nagusia, Irazu eta Etxebeste kaleetan, frontoi atzeko parke inguruan eta Zubiaurrenean ibili ziren

Euskaraz-eko kideek hartu zuten honen ardura. Herriko kaxkoko kaleetan usurbildarrok erabiltzen dugun hizkuntza entzun eta jaso zuten hitzunei ezer galdetu gabe eta hauek, azterketa bat egiten ari zirela konturatu gabe.

15-24 urtekoek erabilera kopuru txikiena

Usurbilgo kaleetan %68ak euskaraz hitz egiten du: hau-

ren %86ak, gazteen %57ak, helduen %65ak, eta zaharren %69ak.

Lehenengo taulan datu hauek Euskal Herri osokoekin, herrialdekoekin, eta tamaina eta ezagutzan antzekoak diren herrieekin alderatu ditugu.

Usurbilgo egoera besteen aldean jartzerakoan Aretxabaleta eta Zumaia aukeratu ditugu, herri tamainan eta euskararen ezagutzan Usurbilen antzekoak baitira. Hiru herriotan haurrak dira euskaraz gehien hitz egiten dutenak, aipatzekoa da ordea, Zumaia eta Aretxabaletan ez bezala, Usurbilen gazteak direla, 15-24 urte bitartekoak, erabilera kopuru txikiena dutenak.

Gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago

Neurketak iraun zituen 6 orduetatik bi emakumezko edo gizonezko izateak euskara erabiltzeko garaian eragina ote duen aztertzeari eskaini zitzaizkion. Euskal Herri mailan

1. TAULA	Euskal Herria*	Gipuzkoa	Usurbil	Aretxabaleta	Zumaia
Haurrak (2-14 urte)	%16	%39	%86	%80	%78
Gazteak (15-24)	%10	%25	%57	%62	%59
Helduak (25-64)	%9	%20	%65	%53	%54
Zaharrak (65 +)	%10	%22	%69	%48	%61
Guztira	%13	%29	%68	%62	%61

* Euskal Herriko eta Gipuzkoako Adin taldekako emaitzetan 5000 biztanletik gorako herriak bakarrik hartu dira kontuan. Guztiak biltzen direnean aldiz, 5000tik beherakoak ere jaso dira.

2. TAULA	Euskal Herria	Gipuzkoa	Usurbil	Zarautz	Lasarte-Oria
Emakumezkoak (2 ordutan)	% 10,7	% 24,1	% 72,2	% 56,2	% 5,0
Gizonezkoak (2 ordutan)	% 10,9	% 23,9	% 75,7	% 57,5	% 5,2
Guztira (6 ordutan)	% 13	% 29,3	% 68,3	% 55	% 8,8

ezaugarri honek ez du eragirik, eta Usurbilen aldiz, **gizonezkoek emakumezkoek baino zertxobait gehiago** hitz egiten dute: %76 gizonezkoek, eta %72 emakumezkoek. Bigarren taulan, maila orokorreko eta inguruko herrietako datuak agertzen dira:


Esan bezala, oraingoa hirugarren neurketa du EKBk. Lehenengo 1989an egin zen, eta garai hartan Euskal Herriko 10.000 biztanletik gorako guztiak eta beherako batzuk neurtu ziren. Azken bi haue-tan, hortaz, Usurbilgo datuak

jaso dira, eta honek 4 urtetako bilakaera aztertze-ko aukera ematen digu: Usurbilen **1993tik 1997ra erabilerak gora egin du**, %64tik %68ra hain zuzen.

Adin talde guztietan erabilerak gora egin du, heldu eta zaharretan batez ere. Azken hauetan, zaharretan alegia, Euskal Herrian erabilerak behera egin du, eta Usurbilen, esan bezala, zertxobait igo egin da.

Olatz Altuna

Lau urtetako euskararen erabileraren bilakaera adin taldeka



Neurketaren arabera bada Usurbilen gertaera bitxi bat

1991ko udal erroldaren arabera Usurbilen euskaraz hitz egiteko gaitasuna %66ak du *, eta EKBk egindako azken neurketaren arabera, herrian erabilera %68koa da. Ezinezkoa da Erabilera hitz egiteko gaitasuna baina haunditua izatea ezinezkoa dela jakinda, logikarik gabeko erreallitate linguistikobaten aurrean gaudela pentsa genezake.

Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegik" sortu eta Xabier Isasi unibertsitateko irakasleak ondoren garatutako eredu matematikoaren arabera erreallitate honek badu bere azalpena.

Aipatutako ereduak Usurbili aplikatuz azalpena honakoa litzateke: "Usurbilen euskaldunen arteko trinkotasuna %105ekoa da".

Hitz potolo hauek badute azalpen sinpleagoa: neurtutako kaleetan, kale jendetsuenetan, euskaldunok ezagutzaren arabera dagokiguna baino indar haundiagoa lortu dugu.

Euskaldunok herriko eremu publikoa edo erdigunea gureganatudugu, izan ere bertako eta auzoetako euskaldunen erdigunerako joera erdaldunena baino haundiagoa baita. Honela kaxkoko euskaldunen kopuruak gora egiten du, erabilera nabarmen haundituz.

*Datu honi "ia euskaldun"-en portzentaia, euskara ulertzen dutenena, gehituz gero, guztira %80 inguruko kopurua lortzen da.

Urdairatik Orioko Bentara bidea egiten

Gogoratzen al zarete Urdairatik Orioko Bentara joateko zegoen bide hartaz? Ba, laister batean hartu ahal izango duzu bide hori. Eguzkitza baserriko jabearekin azken urteetan izandako ikamikak amaitu ez badira ere joan den uztailaren 24an hasi ziren bide berria egiten.

Uztailaren 23an Urdairatik gorako bazterrak txukundu ondoren hurrengo egunean sartu ziren Eguzkitza baserri ondotik pasatzen den bidere lanean hasi behar duten makinak . 3 metroko zabalera izango duen pasabidea egiteko bi aldeetara aterako dira lur eta harriak. Eguzkitzako bidegurutzetik gorakoak Orioko Benta aldera eta behekoak Urdaira aldera.



Bidea irekitzeko lanak hasi dituzten arren arazoak ez dira oraindik amaitu. Hobekuntzarako proiektuan, espropiazioak eskatzen duen balorazioetan lurren balorazioaz gain bideak hartuko dituen zuhaitz eta landareena egin behar izaten da. Eguzkitza ba-

serriko jabeak 8 milioi pezeta-ko balorazioa egin zuen garai batean, baina udalari gehiegizkoa iruditu zitzaion eta 800.000 pezeta ordaintzea proposatu nahi zaio baserriaren jabeari. Uztailaren 27ko plenoan erabakiko da zer proposamen egingo zaion..

SINDIKATU INGURUAN ETXEA EGITEKO AZTERKETAK

Gaur egun Sindikatua dagoen lekuan eta atzeko plazan etxeak egin ahal izatekobideratzeak aurrera doaz. Uztailaren 27an egingo den plenoan xehetasun azterketari hasierako onepena ematea erabaki zuten. Sindikatua dagoen lekuan bi bloke egingo dira eta aparkalekuan beste bi pisuko 3-4 etxe egiteko asmoa dute hemendik urte batzuetara.

UGARTEKO LOKALA EROSTEO ERABAKIA

Uztaileko azken asteartean egin zen plenoan Ugarte industrialdean Labe-Txiki okindegiak zuen lokala erostea erabaki zen. Jabeekin akordio batera iritsi ziren orain dela aste batzuk, baina astearteko plenoan hartu zuten lokala erosteko erabakia. Hemendik aurrera zerbitzuetarako erabiliko da lokal hau, zerbitzuetako materiala hor jasoko da.

IZAGIRRE S.L. LANTEGI AURREKO URBANIZAZIOA

Zumartegi industrialdean kokatuta dagoen Izagirre S.L. inguruko urbanizazioa udalaren esku egongo da hemendik aurrera, hori erabaki baitzuten azken plenoan. Alde batean dagoen espaloia nahiz farolen mantenua udalarena izango da eta beste aldean dagoen zelaiaz ere arduratu behar-ko dute udaleko langileek. Orain arte lantegiaren esku zegoen lan hau.

XABI ER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 943 36 22 55



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

S anestebanak 98

Noaua! Usurbil 48.zk.

1998ko uztailak 31



San Esteban jaiak ere aldatuz doaz

San Estebango jaiak beti izan dute xarma berezia. Andatzaren babesean dagoen ermitaren aurreko plaza jendez beteta egoten da, eta egoten zen lehen ere, San Esteban egunean. Gaur egun bertara iristeko bitarteko hobeak baditugu ere, lehen kanpotek jende gehiago etortzen omen zen abuztuaren hasiera-jai hauetara.

1641. urtean ere San Esteban jaiak ospatzen ziren, hala dio behintzat Luis Murugarrenen liburuak. Garai hartan, bost edo sei eguneko festa egiten zuten eta egun horietan Usurbilgo nahiz kanpoko jendea San Estebanen ikustea gauza normala zen. Jaiak ospatzen zituzten egun horietan ardoa eta beste jaki batzuk ekarri eta San Estebango plazan saltzen zituzten.

300 urte beranduago ere jende asko hurbiltzen zen San Estebango jaietara. **Kandelari** San Estebango ermitako serorak gogoratzen dizkigu garai haiek. *"Lehen jende asko etortzen zen. Igeldo, Orio, Zarautz, Aia... inguruko herrietatik San Esteban egunean hona etortzea ohitura garrantzitsua zen garai hartan. Nahiz eta orduan orain dauden bideak ez egon autobusetan ere etorri izan da jendea San Estebango festetara. Beste batzuek, Igeldokoak adibidez, oinez etortzen ziren filarmonika joaz. San Esteban eguna egun haundia izaten zen bai hemengoentzat eta bai kanpokoentzat".*

Gaur egun oraindik mantentzen dira garai hartako zenbait ohitura. San Esteban egunean, abuztuaren 3an, meza nagusiaren ondoren ardoz betetako


zahagia eskuz-esku ibiltzen da San Estebango plazan. Kandelariaren arabera lehen ere zahagia ateratzen zen jendeak ardoa edan zezan. Hala ere, ba omen zen beste gauza xelegre bat, erroskilena. *"Erroskila saltzailleek ia plaza osoa hartzen zuten, postu ugari egoten ziren. Eta erroskilak saldu? ikaragarri, inor ez zen erroskilik gabe etxera joango. Orduan soka batekin lotuta jartzen zituzten".* Erroskilak zozketatzera ere etortzen zen jendea. Zenbakiak saldu eta denen artean zozketatzen zituzten erroskilak.

Gaur egun Urdaiagan egiten dira festak, ermitaren aurreko plazan. Laupabost egunetan hainbat ekitaldi burutzen dira, guztiak San Estebango ermitaren inguruan. Lehen, ordea, Txokoaldera ere iristen ziren jaiak. *"Eguraldi txarra egiten zuenean Saltxipin egiten zen erromeria, tolareak zeuden lekuan. Orain Illunbe sagardotegia dagoenaren ondora ere joaten ginen dantzara. Orain berandu hasten da musika baina orduan bederatzietako bukatuta egoten zen erromeria. Lehen esan dudan bezala lehen oso famatuak ziren San Estebango festak. Orain, berriz, zer egiten da festetan? Ezer ere ez. Egunez ez dago ezer, dena gauean. Gure garaian bazkaldu eta platerak garbitzean festara aldegiten genuen"*

Josu Aranberri.



ZABALA ANAIK 

 **janaridenda**

Ondo pasa festak!

Santuenea, 17

Tlf.: 943 37 20 34



ZUMETA JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozberoa trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsatan
- Etxeko azkenburukoan dastapena
- Ogia eta kafea


3.475 pta. (pertsanako)

Mende erdia ermita garbitzen

San Esteban jaiak inguru hauetan ezagunak badi-ra zer esan dezakegu bertako ermitaz. Orain dela 10 urte inguru teilatua erori eta oso egoera txarrean gelditu bazen ere, konponketa lanek bere fruitua eman zuten: inoiz baino politagoa aurkitu genuen San Estebango ermita. Honetan zerikusi haundia du bertako serorak. Eginalak eginda ere ez genuen berari argazkirik ateratzerik lortu.

Kandelarik urte asko daramatza ermita zaintzen. Bere ama ere serora izan zen eta aita berriz, sakristaua. 20 urte zituenetik hauei laguntzen ibiltzen zen. Horregatik berak hartu zuen gero hauen erreleboa. Azken 50 urtetan berak ireki eta ixten du ermita, eta nola ez, garbiketa lanak, txukunketa lanak... ermitaren sekretu guztiak goitik behera kontrolatzen ditu.

Gu ermitara sartu ginenean San Estebango jaietako ospakizunetarako ermita garbitzen ari zen **Kandelari**. Garai batean, amari eta aitari laguntzen zienean eta ondorengo urteetan ere bai, lan haundia izaten omen zuten ermita garbitzen. "Orain baino lan gehiago egiten genuen lehen! Egurrezko zolua garbitzen pasatzen genuen denbora gehien. Orain garbiketak azkarrago eta erosoago egiteko gauzak badaude, baina garai hartan belauniko jarrita garbitu behar izaten



San Estebango ermita ondo mantentzea da **Kandelari**ren eginkizuna. Etxera ere joan izan zaio jendea ermita irekitzeko esanaz

genuen, zolu guztia dizdiratsu utzi arte".

Orain ere izaten du nahikoa lana. Normalean astean behin garbitzen du ermita, baina azken urteetan San Estebango ermitan ezkontzea modan jarri da eta honek lan gehiago suposatzen du berarentzat. "Bakar-bakarrak aritzen naizenez lana pilatu egiten da. Azken urteetan ezkontzak ugaritu egin dira eta horrek lana suposatzen du niretzat. Inguruko herrietatik, Lasartetik, Pasaitik... ermita honetara etortzen dira ezkontzera eta batzuetan egun berean bi bikote ezkondu izan dira". Ermita bete egiten da egun horietan eta garbitu beharreko zikinkeria gehitu. "Ezkontzak ordubete baino gutxiago irauten badu ere, jende asko biltzean zikinkeria pilatu egiten da handik eta hemendik".

San Estebango serorak badu ermita garbitzeko modu berezi bat, "menda belarrarekin garbitzen dut ermita guztia. Menda sorta hartu, makila bati lotuta erratza modura jarri eta belar horrekin pasatzen dut ermita guztia. Zikinkeria biltzeaz gain usain ederra jartzen du". Behin, mendarekin garbitzen ari zela atzerritar batzuk sartu omen zitzaizkion ermitara. "Elkar ez ginen ulertzen, baina mendaren usaina gustatu eta menda sorta bat eraman zuten".

Kandelarik uztean nor arduratu-tuko da San Estebango ermita? Berak ere badu kezka txiki bat. "Erreleborik ez dago. Kezkatzen nauena ez da orain lanak bakarrik egin behar izana, atzetik inor ez datorrela ikustea bazik"

Josu Aranberri

TABERNA
 BAZKARIAK
 ETA AFARIAK
 Safuena 23
 Telf: 943 36 27 34

Jai zoriotsuak opa dizkizuegu
 Sanestebandar guztioi!

ZABALEA
 Nekazal turismoa
 Binakako logelak
 Gosari zerbitzua

San Esteban auzoa
 Tlf: 36 12 61

ALBORTA
HARATEGIA
 Beheko kalea, 4
 Atxegalde ☎ 943 36 57 42

Abuztuak 1. larunbata Umeen eguna

10.00etan **haur jolasak** eta **buruhaundiak**.
16.00etan **mozorro lehiaketa**
17.00etan **haurrentzat pailazo ikuskizuna**.
18.30etan **txokolatada**
Jarraian **buhuhaundiak**
23.00etan kontzertua: **Xuia Reggae Band**.
Ondoren **Izotz**.



Abuztuak 3. astelehena San Esteban eguna

9.00etan **esnadeia**
11.00etan **meza nagusia**
Ondoren **zahagi banaketa**, **herriko dantza-riak** eta **trikitixa**.
14.00etan **jubilatuen bazkaria**
17.00etan **bertsolariak**: **Agirre, Gorrotxategi** eta **Mañukorta**.
23.00etan **Laiotz** taldearekin **dantzaldia**



Abuztuak 2. igandea Trikiti eguna

9.00etan **esnadeia**.
10.30etan **meza nagusia**.
Ondoren **Saralegi anai-arreben aizkora ekitaldia**.
14.00etan **Herri bazkaria**. Edaria eta kafea **Jai Batzordearen** esku.
17.00etan **Gorritiren showa**.
Ondoren **toka txapelketa herrikoia**
23.00etan **Trikiti gaua**: **Eztanda**
Imuntzo eta Beloki
Kristina eta Amaia

Abuztua 4. asteartea Oilasko biltzaileen eguna

6.00etan **oilasko biltzaileen irteera**.
16.00etan **oilasko biltzaileen bazkaria**
23.00etan **Trakets** taldea



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak


Zorionak sanestebandar guztioi! San Esteban
Tif. 943 36 22 55

Sanesteban jai zoriontsuak pasa guztiok!

Atxegaldeko plaza ere berri egingo dute

Atxegalden aurrera doaz urbanizazioa berritzatzeko lanak. Beheko aldean egiten ari diren lanak nahikoa aurreratu-ta daude eta orain goiko aldean ari dira lanean. Udalak, berriz, proiektuan aurreikusten ez ziren lan batzuk egitea erabaki zuen joan den astearteko plenoan.

Atxegaldeko urbanizazioaren hasierako proiektuan sartuta ez zeuden zenbait lan burutzeko beharra ikusi dute lanak egiten ari ziren bitartean. **Joxe Antonio Altuna** alkatearen esanetan, "proiektuan jasota ez zeuden detaile ugari orain egitea komenigarria dela iruditu zaigu". Saneamenduari begira zenbait lotune berri egin dira, Mahaspildegia aurrean dagoen jardina tratamenduan jarriko da, farola berriak ere jarri dira...



Hauekin batera beste bi lan garrantzitsu egingo dira. Alde batetik Atxegaldeko N-634 errepidera, autobus geltokira jeisteko eskailera berria egingo da, oraingo eskaileren egoera ez baita batere ona.

Beste aldetik, plaza berritzeko erabakia hartu dute.

Proiektuan hori ez zen aurreikusten, baina inguru guztia berri eta plaza bere horretan uztea ez zaie ondo iruditu eta horregatik plaza berri egingo da.

Proiektuz kanpo egingo diren lan hauen aurrekontua 30 milioi ingurukoa izango da


Eguzki indarra hartzeko panelak kiroldegian

Olaro kiroldegian eguzki indarra aprobetxatzeko eguzki panelak jartzen hasi dira. Guztira 2 metro luze eta metro bat zabal diren 70 panel jarriko dituzte igerilekuaren kanpo aldean.

Hasiera batean, kiroldegia- ren sabaian jarri behar zituzten, baina arriskutsuegia iruditu zitzaizkien. Izan ere, kiroldegia egin eta urtebetera itokinak sortu eta sabaia konpondu

behar izan zuten. Horregatik, eguzki panelak hor jartzen ez dira ausartu.

Panel hauek jarriz batera, gasoleoaren erabilera murriztu nahi dute. Eguzki indarra dutxetako ura eta pisinako ura berotzeko erabiliko dute, nahiz eta uraren erdia bakarrik berotuko duen. Aurrekontua 13 milioi ingurukoa da, baina udalak ez du pezeta bat bera ere ordainduko.


PORTULARRUME


ITURGINDEGIA
BAINUKO
ALTZARIAK

Kale nagusia, 2-2-D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99



MAHUKA


GAZTE DENDA

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 943 36 11 06

ALBORTA

HARATEGIA

Behoko kalea, 4
Atxegalde ☎ 943 36 57 42

2 orduko lanuztea Eginen ixtea dela eta



Egin egunkari eta irratiko langileek, sindikatu batzuen laguntzaz, uztailaren 23an 11.00etatik 13.00etara deitutako geldialdiak erantzun zabalda izan zuen Usurbilen. Herriko taberna eta denda gehienek beren ateak itxi zituzten eta 2 ordu horietan inguruko lantegietan lanuztea egin zuten langileak ere asko izan ziren. Eguerdiko 12.00etan, Egin egunkaria eta Egin irratia zabal ditzaten eskatzeko manifestazioa egin zen herriko kaleetan zehar. Bestalde, aurreko egunean egin zen pleno berezian, Herri Batasunak Eginen zabaltzea eskatuz aurkeztu zuen mozioa onartu zen H.B, E.A eta **Izaskun Maiz** independentearen baiezkotoekin. P.N.V. abstenitu egin zen.

Kalitate diploma Usurbilgo Lanbide Eskolarentzat

Usurbilgo Lanbide Eskolari ISO 9002 gorenko kalitatea ziurtatzen duen egiaztapena eman go diote datorren urrian. Tolosaldea, Bergara eta Martuteneko eskolak izan dira estatu espainiarrean egiaztapen hau lortu duten lehenengoak eta usurbilgoari datorren urrian emango diote. Azken urteetan ikasturtearen hasieran jarritako helburuak eta programa betetzea lortu du Usurbilgo Lanbide Eskolak eta ikasleen formakuntza hobetzen ari da urtetik urtera. Horregatik emango diote kalitatearen ISO 9002a datozen hiru urteetarako.



Aritzetako autobidea 1999an bukatuko dute



Gipuzkoako Foru Aldundiak datozen 12 urteetan Gipuzkoako errepideetan egingo diren obren berri eman berri du. Bertan jakitera eman denez, joan den urtean egiten hasi ziren Aritzeta eta Lasarte bitarteko autobidea datorren urtean amaituko dute, 1999an. Bestalde, 2002. urtetik 2004 bitartean Lasarte eta Orio bitarteko N-634 errepidearen egoera hobetzeko lanak burutzeko asmoa du Gipuzkoako Foru Aldundiko errepide sailak. N-634 errepidean egingo dituzten lanen aurrekontua 1000 milioikoa izango da.

gorriti
EDARITEGIA

kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

Ekaitz

Bideo eta ARGAZKIak

Usurbil

tlf 943 36 14 87

01ARTZUN



Herriko pelotariak indartsu dabilta azken aldi honetan. Federatuetan, **Enrike Huizi** Añorgan jokatu den Jolas Etxea txapelketan txapeldun izan da Apezetxea Goizuetarrarekin. Finalean 22-8 nagusitu ziren Estebe eta Olaranen aurka. Bestalde, federatu gabeetan **San-txok** banakako finala jokatuko du eta **Jon Sarasua eta Esnalek** binakakoa San Inazio egunean.



Zubietako Santio jaiak joan den uztailaren 24an hasi ziren. Aste osoan ekitaldi ugari izan dira Zubietako plazan, dantzaldiak, bertso-lariak, ume jokoak... Hala ere, Santio egunean zubietarrek eskaini zuten soka dantzak ikusmin handia sortu zuen. 12.30ak baino lehen 8 zubietarrek soka dantza dantzatu zuten herritarren eta Zubietako ikurrinaren aurrean.

Baserrien azterketarako Noaua!ren beka

Usurbilgo baserriak auzoz auzo proiektuak irabazi du Usurbilgo herriari buruzko ikerlanak egiteko 1998rako dirulaguntzak banatzeko **Noaua!** Kultur Elkarteak egin zuen deialdia.

Proiektu hau Ziortza Gazte Elkartearen Kultur Tailerrak aurkeztu zuen, eta baserrien kokapena eta ingurunea, arkitektura, historia eta iharduera aztertzea da lanaren asmoa. Txostena argazki bilduma batekin osatuko dute, baserri bakoitzari hiruna argazki.

Noaua! Kultur Elkarteak egin duen ikerketarako

dirulaguntzen estraineko banaketara beste bi egitasmo ere aurkeztu ziren. Batek Usurbil arraunean (1953-1963) gaia aztertu nahi zuen, eta besteak garai bateko gizartetik (nekazari kulturatik) egungo gizarterako (kultura industrialera) ibilbidea aztertu nahi zuen gure herrian.

Epaimahaia uztailaren 24an bildu zen, eta azken erabakia ia ahobatez hartu zuen. Egitasmo irabazlearen zenbait ezaugarri azpimarratu egin zituzten: mugatua, osoa, aberatsa, metodologia zehaztua, gazte askoren partaidetza.

Epaimahaia honako hauek osatu zuten: Eustakio Arrojeria, Joxean artze, Izaskun Egileta, Juanjo Gomez, Arantxa Illarramendi, Joxe Mari Izeta, Pili Lizaso, Andoni Sagarna, Koro Segurola, Joxe Ramon Zubiaur eta Joxe Ramon Zubimendi.

Orain, sei hilabeteko epea izango dute Ziortza Gazte Elkartearen Kultur Tailerrekoek ikerlana bukatzeko. Beraz, hemendik dei egin nahi diegu baserriarrei beti bezain harrera beroa egin ziezaieten **datuak jasotzera eta aragzkiak ateratzera hurbiltzen zaizkien gazteei.**



TABERNA



7 t'erdietan irekitzen dugu

Goiz goizetik gosariak

Irazu kalea, 12
Tlf: 943 36 02 17

TXURRUT

edaritegia



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel: 943 36 00 80

Usurbildarrek futbolik nahi al dute?

Munduko futbol txapelketaren oihartzuna ixildu bada ere, jarraitzaile gehien dituen kirolak emango du zeresanik hemendik aurrera. Futbol talde profesionalak hasi dira denboraldi berria prestatzen eta profesionalak ez direnak, berriz, laister hasi beharko dute. Hauen artean dago Usurbil Futbol Taldea. Talde honen gorakada nabarmena izan da azken urteetan. Datorren denboraldian, aurrekoan bezala, 4 talde desberdin arituko dira Gipuzkoako herri desberdinetan, guztira 100 gaztetik gora.

Orain dela lau urte futbolaren egoera tamalgarria zen Usurbilen. Urte askotako lanaren ondoren desagertzeko bidea hartu zuen hainbat ume eta gazte pasa izan ziren taldeak. 1994. urtean Usurbil futbol talderik gabe gelditu zen eta Harane futbol zelaian kanpoko taldeen partiduak bakarrik ikusi zitezkeen.

Egoera hau ikusita, esperientziarik gabeko gazte talde batek Usurbil Futbol Taldea berpizteko konpromezua hartu

zuen. 5000 biztanle baino gehiago zituen herri batean futbol talderik ez egotea nola ulertu zitekeen? Gazteek herri-rik kanpo joan beharra zuten inguruko talde desberdinetara.

Udaletik jasozten duten diru kopurua barre egiteko modukoa dela uste du Usurbil Futbol Taldeko zuzendaritzak

Hasiera batean jubenilen taldearekin hasi baziren ere, hiru urtetan maila desberdinetan lau talde izatera pasa da Usurbil Futbol Taldea. Kadete, jubenil eta errejional mailako taldeez gain, Usurbil F.T.ak, bere historian lehenengo aldiz, nesken taldea izan du azken bi denboralditan. Horrez gain, Udarregi ikastolarekin lortutako akordio baten bidez ikastolako haurrekin ere lan egin da aurtan. Infantil mailan (13-14 urte)adibidez, futbol zelai

haundiko taldea Gipuzkoako futbol zelai desberdinetan jokatzen aritu da.

Honekin gauza bat argi utzi nahi dute Usurbil F.T.ko zuzendaritzakoek: azken urteetan gero eta jende gehiago dabil futbol taldean. **Pepe Salazarren** esanetan, "talde bakarra izatetik lau talde izatera pasa gara eta ikastolako haurrekin ere lan egiten dugu. 100 jokalaririk ingururik egin zaie fitxa azken urtean eta hori kontutan hartu beharreko kantitatea da. Lau urtetan ezezetik talde garrantzitsu bat izatera pasa gara. Denborak erakutsi digu arrazoi genuela. Lan eta esfortzu piska batekin gero eta talde gehiago izatea lortu dugu". Lorpenak ere hor daude. Iaz, jubenilen taldeak 2.mailatik 1.mailara igotzea lortu zuen. Aurtan, berriz, azken urteetan 2. errejional mailan zegoen taldeak 1. errejionalean jokatzeke txartela eskuratu du.

Zuzendaritzak oztopo ugari gainditu behar izan ditu lau urte hauetan. Pepek dioenez, "gure taldeetan kanpoko



jende askok jokatzeko duela aurpegira bota digute behin baino gehiagotan. Usurbil F.T.a izan beharrean beste izen bat jartzeko ere esan izan digute. Orain ixilik egon daitezke horiek". Gaur egun Usurbil F.T.an jokatzeko duten jokalariek gehienak usurbildarrak dira, kanpokoak oso gutxi dira, eta daudenak denbora asko daramate taldean.

Hala ere, arazo nagusia diru eskasia da zuzendaritza batzordearen esanetan. Aurten 2.000.000 pezeta aurrekontua izan dute eta datorren urtean ere gastatzeko izango duten diru kopurua antzekoa izango da.

Izan ere, udaletik jasotzen duten dirulaguntza barre egiteko modukoa dela iruditzen zaio zuzendaritzari. "Lotsagarria da Usurbilgo Kirol Patronatetik jasotzen dugun diru kopurua. Azken lau urtetan ia bost talde izatera pasa gara eta jasotzen dugun diru kopurua talde bakarra izango bagenu bezalakoa da. Lehen taldeari izena aldatzeko eskatzen baziguten, agian orain guk pentsatu beharko genuke hori. Nahiz eta Usurbilen kirolari gehien dituen taldeetako bat izan, beste kirol talde batzuekin alderatuta Kirol Patrona-



tutik jasotzen dugun diru kopurua tamalgarria da. Aurten 350.000 pezeta emango dizkigute, orain arte 60.000 pezeta bakarrik jaso baditugu ere".

Kirol Patronatuak Usurbil Futbol Taldeari ematen dion dirua oso gutxi dela argi dute zuzendaritza batzordeko kideek. 100 gazte baino gehiago dabilzan talde batek zerbait gehiago merezi duelakoan daude. Ematen dieten diruarekin kirolarien fitxak ordaintzerare ere ez dira iristen, 500.000 pezeta inguru gastatzen baitituzte fitxetan. "Patronatuak ematen digun diruarekin denboraldia aurrera atera nahi

ezkero jai daukagu. 5 talde aurrera ateratzeko 2.000.000 pezeta aurrekontua dugu eta kopuru honekin ezin da gauza haundirik egin. Gipuzkoako herri desberdinetara Usurbilgo herria ordezkatzu bagoaz irudi ona eman behar dugula uste dugu eta diru faltagatik askotan ematen dugun irudia penagarria da. Kanpoko partiduetara jokalarien kotxeetan edo gurasoen kotxeetan joaten gara, autobusa ordaintzeko dirurik ez dugulako". Horrez gain, denboraldi hasieran jokalariek guztiegi galtza motz eta galtzerdi berriak ezin dizkiete erosi.

Pepe Salazarren esanetan herriko denda, taberna eta lantegi desberdinei esker eta jokalariek eta bazkideen laguntzagatik jarraitzen du aurrera Usurbil F.T.ak. "Hauek ematen diguten laguntza eskertzekoa da. Udaletik jaso beharko genukeen dirua bide honetatik lortu beharrean aurkitzen gara. Jokalariek bazkide izan behar dute eta urtean zehar errifak saldu behar izaten dituzte. Ez al da lotsagarria honela ibili beharra futboleko jokatu ahal izateko? Beste herrietako futbol taldeekin alderatuta oso diru gutxi jasotzen dugu".

Josu Aranberri



Eliza itxi ondoren sabaia eta dorrea konpontzen hasi dira

Santio egunean nahiz hurrengo egunean, igandean, ez zen mezarik izan Salbatore parrokian. Uztaillaren 20az ezkerotik, elizan zeuden aulki eta eserlekuak atera eta konponketa lanean ari dira. Baina zer konpondu behar dute ba? Kanpandorre-aren egoera txarrraren berri bazuten, baina ustekabeko lan bat egin beharra etorri zaie: eliz barruko sabaitik harri pusketak erortzen hasi eta eliza itxi behar izan dute sabaian berrikuntza lanak egiteko. Horregatik bi hilabete-tan elizkizunak Zumartegi industrialdeko pabeloi batean egingo dira asteburu, jaiegun eta hileta ospakizunak.

Eliz barruko sabaia konpondu beharra ustekabekoa izan da Salbatore parrokiko ekonomia batzordearentzat. Azken urteetan, tarteka, oso gutxitan bada ere, pusketak txikiak erori izan



dira sabaitik behera. Aurten, ordea, bi aldiz erori dira eta azterketa egin ondoren konponketa lanei lehenbailehen ekitea erabaki dute.

Oreka Prego enpresari elizako sabaia azterketa egiteko agindu ondoren koskorak sabaian dauden dobela eta nerbioak elkartzen diren tokitik

erortzen zirela egiaztatu zuten. Lotune horiek husteren joan dira pixkanaka-pixkanaka eta Gotzaitegiko arduradunak eta arkitektoak ikusi ondoren sabai guztiari begiratu bat eman eta seguruena berritza izango zela adierazi zieten parrokiko arduradunei. Sabaia berritza eta pintatza 7.500.000 pezeta inguru kostako da.

Elizako dorrearen kontua bestelakoa da. Azken urteetan gero eta hondatua go zegoen, harri pusketak eta

hondarra erortzea gauza arrunta zen azken urteetan. Hala ere, dorrearen egoera txarrraren zergatia argitzeko historiara jo beharrean gaude.

Dorrea egiterakoan materialarekin arazoak

Gaur egun ia egunero ikusten dugun elizako dorrea 1762 eta 1764 bitartean egin zuten Francisco de Ibero arkitekto gipuzkoarraren aginduetara. Barroko estiloko dorrea Zubietako Abalotzetik ateratako kareharriaz, kolore bereko eta kalitate oneko gatzik gabekohareharriaz egitea eskatu zuten arkitektoak. Obra Jose Antonio Atxega usurbildarrari eman zitzaion.

Hala ere, dorrea egiterakoan arkitektoarekin arazoak izan zituzten. Dorrea altxatzen hasi zirenean elizaren parera iritsi eta bost ilara gehiago eginak zituztenean, Ibero arkitektoak informe gogor batean kritika zorrotzak egin zituen. Berak ez zuen dorrearen eraikuntza bertatik bertara jarraitu eta informean momentu hartan dorrearen egoera oso ona ez zela esaten zuen. Azkenean, 1765. urteko urtarrilaren 15ean amai-



tutzat eman zuten Salvatore elizako dorrea.

233 urte geroago, 1998. urtean dorrearen egoera ez da batere ona. Oreka Prego erakuntza enpresak egin duen informearen arabera, urteen joanak eta dorrea altxatzera-koan kalitate oneko materiala erabili ez izanak eragin handia izan du horretan.

Dorreko harriak orokorrean nahiko hondatuta daude

Mendizorrotz eta lgedoko harria erabili zuten torrea egiterakoan eta harri hauek orokorrean nahiko hondatuta daude. Horregatik, hauetako batzuk aldatu egin beharko dira. Bestalde, kutsadura eta poluzioak zikinkeria ugari utzi du harri hauetan eta alga berdeak ere asko ikusten dira harriaren hezetasuna areagotuz. Azken finean eguraldiak, urteak, kutsadurak harriak gas-tatu eta hondar bihurtu ditu. Hala ere, Oreka Pregoren txostenean dorrearen egoera



hobetu daitekeela esaten da, erakuntza berez, bere osotasunean ondo baitago.

Dorrea oso-osorik konpontzeko proiektua Gotzaitegiaren bidez bideratu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundian dago ja. Eraberritze osoaren aurrekontua 25 milioira igokoenez momentu honetan ezingo da dorrea berritu. Foru Aldundiaren dirulaguntza behar-beharrezkoa dute eta

hori lortzeko gutxienez hiru urte itxaron beharko da.

Hala ere, sabaia konpontze-arekin batera dorrean ere zenbait lan egingo dira. Dorrearen egoera txarrak dakarren arriskua murriztu nahi da behin betiko lanak egin bitartean. Beraz, behar-beharrezko lanak egingo dira orain 3.500.000 pezetako aurrekontuarekin.


Josu Aranberri

Bitartean elizkizunak Zumartegiko pabeloi batean

Salvatore parroikiko lanak amaitu bitartean, Zumartegi industrialdean, estazio ondoan dagoen

areto batean egingo dira asteburu, jaiegun eta hileta ospakizunak. Eguneroko meza, berriz, sakristian egin-

go da. Sabaia eta dorrea konpontzeko bi hilabete inguru beharko dituztela pentsatzen da.



Mojetan ibilitako 104 emakume elkarrekin

Mojetan ikasten ibilitako 104 emakume bildu ziren joan den uztailearen 10ean Txitxardin beltza jatetxean egin zuten afarian. Aspaldi ikusi gabekoak, ezagutzen ez zirenak, inguruko herrietan bizi direnak... oso gustora ibili ziren, bai aurretik Kalezarren mojetan egin zuten ospakizunean eta baita afarian ere. Elkarri esan beharreko kontuekin motz egin zitzairen gaua.

Mirari Larretarena izan zen mojetan ibili ziren guztiak biltzeko ideia. Kanean, batean eta bestean, eskolan elkarrekin ibilitakoak ikusi eta beti esaten omen zuten gauza bera, "egin behar dugu bazkari edo afariren bat e! Hala ere, gero inork ez zuen ezer egiten. utzi eta utzi egon gara denbora askoan, izan ere presaka bizi gara. Azkenean, zerbait antolatzea pentsatu nuen. **Aranzazu Aranbururi** deitu, Maixuxi ere bai eta aurrera atera genuen gure egitasmoa".

Honelako afari bat antolatzea ez da txantxetako gauza. **Mirari Larretaren** ideia izan bazen ere azkenean talde lana bihurtu zen. "Bateko propaganda, besteko ekonomia, bata besteari deitu beharra, izenak jaso beharra... lana haundia izan da. Mojetan ibili ginenak biltzea zen gure helburua eta horretarako hitzeko propaganda izan da garrantzitsuena eta indarrik



gehiena izan duena". Horrez gain, kanean jarritako kartelak eta Noaue!n jarritako iragarkia izan dira afariaren berri zabalitzeko beste bideak.


Afaltzera joan aurretik ospakizun berezia egin zuten mojetan. Han 65 inguru bildu ziren. "Garai hartan irakasle izandakorik ez dago momentu honetan Kalezarren baina gure irakasle izan balira bezala portatu ziren. Ospakizuna egin genuen lehenengo eta ama-birjina dagoen lekura joateko bidean sekulako apaingarriak prestatu zituzten. Leizean argazkiak atera eta merienda antzekoa eman ziguten hango jardinetan".

Afarian giro ederra izan zuten. Aspaldi ikusi gabekoak, apenas ezagutzen ez zirenak, jateko denborarik ere ez zuten ia izan, nahikoa kontu bazuten

elkarri esateko. Usurbildarrak eta Lasartearrak ziren gehienak. "Kanpoan bizi diren asko etorri ziren, Lasartetik, Oriotik, Zarauttik. Adibidez, 18 urterekin Brasilerara bizitzera joan zen mojetan ibilitako bat. 19 urte egon da honera etorri gabe. Kasualdidez orain dela gutxi etorri zen eta gure artean izan genuen afarian. Oso polita izan zen aspaldi ikusi gabekoekin egotea, zoragarria."

Ospakizun hau urtero egiten jarraitzeko asmorik ez dute. Afarian denetik entzun omen zen, urtero egin behar zela, hiru urtetik behin, bost urtean behin..., baina honelako topaketa antolatzeak lan asko ematen duenez urtero ez egitea pentsatu dute. Hala ere, gauza bat argi dute: "hurrengo topaketak ez dira lehenengo hau baino hobekak izango"

Josu Aranberri



Igandetean ganba-ziri mundialak!

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67



Bota bertsoa

Tronko

Aurtengo jaiak hastear daude baina da baten hutsuna, gure lñaki, edota "Tronko" tartean falta zaiguna. Makina urtez bere laguntza eskertu izan duguna, horregatikan barru-barrutik eskerrik asko laguna

Langileaz gain, lagun giroan umorea zen gainezka, bera zegoen leku orotan ziurtatua zen festa. Xanistebanak ondo irtetzea bere aspaldiko kezka, oroitzapen hau gure artean izango dugu gordeta

Sanestebango jai batzordea

Erremedioen txokoa

Lunbagoaren miña arintzeko

Plantxa bat hartu eta ahalik eta aza hosto haundiena berotuko dugu. Ondo berotu ondoren gerriaren inguruan, miña dugun lekuan jarri eta horrela pasa gaua.



Aginetako mina kentzeko

Kazo batean ura jarri eta esku-kada bat gatza botako diogu. Ondo berotu ondoren ahoan ibiliko dugu nahasketa hori. Urari kafe purua ere nahastu dakiok.

Lehiaketa




Nork idatzi zuen "Larros bat du Usurbilek..." abestia?

Asmatzaileen artean **Antxetan** bi lagunentzako afaria zozketatuko da

Ez dakizuela zein den Zubietako udaletxea? Non bizi zarete zuek? Alamandegia jatetxean behin baino gehiagotan sartuko zineten, seguru. Ba Alamandegian dagoen etxe hori da zubietako udaletxea.

Andoni Arrutik asmatu duenez berak izango du **Tragoxkan** afaltzeko aukera.

ARRUTI
harategia



Kale Nagusia, 2


Telf.: 943 37 04 81

**GALARRAGA
GARRAIOAK**


* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

Telf.: 943 37 01 46

1957KO POSTERRAK OPARI!!



KALEZAR (San Juanak)




KALEBERRI (Santixabelak)




ZUBIETA (Santioak)



URDAIAGA (San Estebanak)



SANTUENEA



AGINAGA (San Praxkuak)

- Auzo bakoitzeko jaietan *NOAUA!* rekin batera zure auzoaren 1957ko argazkia jasoko duzu dohain.
- Bazkideek dohain eta tolestu gabe jasoko dituzte poster guztiak.
- Bazkide ez direnek 200 pezetatan erosi ahal izango dituzte Noaua! Kultur Elkartearen egoitzan beste auzoetako posterrak.

A genda

UZTAILAK 31 ostirala

- Zubietako **Santio festen amaiera**.

9.00etan **esnadeia** eta honekin batera **zikiro prestaketa**.

10.00etan **meza nagusia**

Ondoren **errebote lokaleko finala** eta ondoren **eskuzkoa**

14.00etan **zikiro jana**

18.00etan herri kirolak:
Zubieta-Aginaga

ABUZTUAK 1 larunbata

- **San Estebango jaien hasiera**. Umeen eguna.

10.00etan **haur jolasak** eta **buruhaundiak**.

16.00etan **mozorro lehiaketa**

17.00etan **haurrentzat pailazo ikuskizuna**.

18.30etan **txokolatada**

Jarraian **buruhaundiak**

23.00etan kontzertua: **Xuia Reggae Band**.

Ondoren **Izotz**.

ABUZTUAK 2 igandea

- **Trikiti eguna San Estebango jaietan**

9.00etan **esnadeia**.

10.30etan **meza nagusia**.

Ondoren Saralegi anciarriben **aizkora ekitaldia**.

14.00etan **Herri bazkaria**.

Edaria eta kafea Jai Batzordearen esku.

17.00etan **Gorritiren showa**.

Ondoren **toka txapelketa**

herrikoia

23.00etan **Trikiti gaua**:

Eztanda, Imuntzo eta Beloki
eta **Kristina eta Amaia**

ABUZTUAK 3 astelehena

- **San Esteban eguna**

9.00etan **esnadeia**

11.00etan **meza nagusia**

Ondoren **zahagi banaketa**, **herriko dantzariak** eta **trikitixa**.

14.00etan **jubilatuaren bazkaria**

17.00etan bertsolariak:

Agirre, Gorrotxategi eta Mañukorta.

23.00etan **Laiotz** taldearekin dantzaldia

ABUZTUAK 4 asteartea

- 6.00etan **oilasko biltzaileen irteera**.

16.00etan oilasko biltzaileen **bazkaria**

23.00etan **Trakets** taldea

LANPOSTUAK

- ✓ Olaberriako udalak **"Udaltzain-peoi-operari" bat** behar du. Eskararak aurkezteko epea abuztuaren 13an amaituko da. Informazio gehiago G.A.Oko 139. zenbakian

OHARRAK

- ✗ **Ikasle bat behar da Gasteizen pisua osatzeko**. Interesatuak deitu 943-363102 telefonora (Aitziber) edo 372124ra (Andoni)

KALEZARKO MOJETAN IBILITAKO GUZTIENTZAT

Uztailaren 10ean egindako ospakizun eta afarian ateratako argazkiak erosi nahi dituztenek Orellak Gaztañazpin duen kiniela edo loto egiteko dendara joan beharko dute abuztuaren 1etik 8ra bitartean. Argazki albuna han egongo da zuk argazkiak aukera ditzazun.

Argazkiak jasotzera leku berera joan beharko da abuztuko azken bi asteetan.

IBAI ONDO SARI NAGUSIA. PLATER TIRAKETA .

NON: San Estebango kanpan

BALDINTZAK: 15 metrotatik botako dira platerak. 15 plater 6 tiratzailek osatutako taldeetan.

IZEN-EMATEA: 2.500 pezeta

SARIAK: Lau mailetan banatuta

1^a- 8.000 pezeta eta trofeoa

2^a- 7.000 pezeta eta trofeoa

3^a- 5.000 pezeta eta trofeoa

4^a- 4.000 pezeta

5^a- 3.000 pezeta

NOIZ: Abuztuaren 1ean, larunbata

ANTOLATZAILEA: Ibai-Ondo
elkartea

BAZKIDE TXARTELA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

416

bazkide ditu Noauak.

Zu ere egin zaitez

bazkide

SALTXIPI

JATETXEA



Sanesteban jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu guztioi!

Txokoalde, z/g
USURBIL

☎ 943 36 11 27
943 37 10 94 Fax 943 36 55 54